

2009ko irailaren 30a,  
Killarney

Kaixo lagunok:

Megan dut izena, 11 urte ditut eta Killarney-n bizi naiz, Irlandako hego-mendebaldean kokaturik dagoen herri batean. Animaliak oso gogoko ditut eta asko gustatzen zait mendian eta basoan zehar paseatzea. Internet bidez jakin dut zuen lurraldean 35 herri bisitatuko dituen Natura 2000-ri buruzko erakusketa ibiltari bat dagoela. Nik horren antzeko izena duen Europa mailako sare baten inguruko zerbait entzun dut, naturarekin lotura duela uste dut, baina ez dakit zehazki zertan datzan.

Erakusketaren izenburua ikustean “ Bizitzeko tokiak, pertsonentzako tokiak”, nire toki sekretua gogora ekarri dit: sekulako lizarrez inguratutako ur garbiko erreka duen zelai berde, berdea. Toki ia magikoa da, batzuetan Leprechaun iratxoak entzuten ditudala iruditzen zait, hauek basoan bizi diren mitologia zeltiarreko iratxoak dira, maitagarrien antzekoak baina tamaina txikian... Horrelako toki gehiago existitzen badira, hauek babestu, zaindu, ezagutu... nahiko nifuzke. Lagun diezadakezue? Detektibeetara jolas dezakezue, Natura 2000 zer den aztertu eta leku berezi horiek zeintzuk diren ezagutzeko. Leku horiek zaindu, ezagutu eta gozatzea gonbidatzen zaituztet, toki apartak eta bakarrak dira.

Musuak.

Megan Mac Cárthaigh

Post Data: Lehen pista bidaltzen dizuet.

“Etengabe erabiltzen duten hitz klabe bat dago. Ikerketa jarraitu ahal izateko bere esanahia asmatu beharko duzue. Bere izena **BIOANIZTASUNA** da. Honen inguruan aztertu nahi baduzue jarraian datorren ariketa egin beharko duzue.”